

MUTURREKO METEOROLOGIA 2002AN
METEOROLOGÍA SEVERA EN EL AÑO 2002

INTRODUCCIÓN

Se presenta a continuación un resumen del informe de meteorología severa del año 2002 elaborado por la Dirección de Meteorología y Climatología. Se recogen los aspectos más destacados de los episodios de meteorología adversa que afectaron a la Comunidad Autónoma del País Vasco durante este año. Se presenta una breve descripción de los aspectos meteorológicos relativos a estos episodios adjuntando información de distintos modelos numéricos, además de algunos registros de la red hidrometeorológica del País Vasco.

Durante el año 2002, en la CAPV, se han registrado 11 episodios de meteorología adversa, de acuerdo a la clasificación empleada por la Dirección de Meteorología y Climatología, en particular se han producido galernas, inundaciones, temporales de viento y tormentas muy fuertes.

Los episodios de precipitaciones han cobrado protagonismo a lo largo del año, contabilizándose cuatro episodios de lluvias intensas y persistentes que han dado lugar a inundaciones de diferente magnitud. De entre ellas, destaca la ocurrida entre el 24 y el 28 de agosto. Durante este período se produjeron precipitaciones localmente muy fuertes y torrenciales. La cantidad de precipitación acumulada superó los 100 mm en buena parte de la vertiente atlántica e incluso los 300 mm en algunos puntos. Estas lluvias provocaron el desbordamiento de varios ríos, como es el caso de Oiartzun, Muxika y Mungia.

De los dos episodios de vientos fuertes ocurridos, destaca el del 13 de noviembre, registrándose rachas superiores a los 120 km/h en muchos puntos. Entre el 1 y el 3 de febrero se registró la racha máxima del año, 189 km/h, en la estación de Orduña. En Mayo se produjeron dos galernas, con una de intensidad fuerte el día 13, con rachas de viento superiores a 130 km/h y descensos térmicos de 10 °C en pocos minutos y otra de intensidad moderada el día 21.

A lo largo del año se han contabilizado tres episodios de tormentas fuertes. Destacan por la intensidad de sus precipitaciones las tormentas que se desarrollaron la tarde del 18 de septiembre, registrándose una intensidad máxima de 47,1 mm/h en Urkulu, y las tormentas de granizo del 22 de julio, con 35,4 mm/h en la estación de Mundaka.

SARRERA

2002 urtean jasandako muturreko meteorologiaren inguruan Meteorologia eta Klimatologia Zuzendaritzak egindako txostenaren laburpena duzu esku artean. Laburpen honetan iaz EAEn nozitutako eguraldi txarreko gertaera aipagarrienak batu dira. Gainera, gertaera horien gaineko alderdi meteorologikoen azalpen xume bat ere taxutu dugu, eredu numerikoei buruzko informazioarekin eta EAeko sare hidrometeorologikoko zenbait erregistroekin.

2002 urtean muturreko meteorologiako 11 gertaera nozitu zituen EAek, Meteorologia eta Klimatologia Zuzendaritzak egindako sailkapenaren arabera; batez ere, enbatak, uholdeak, haize-ekaitzak eta trumoi-ekaitz oso gogorrak izan dira.

Prezipitazioak nagusi izan dituzten gertaerak protagonismo handia bereganatu dute urtean zehar, eta guztira euri gogor eta iraunkorreko lau gertaera izan dira, nolabaiteko uholdeak eragin dituztenak. Horien artean abuztuaren 24tik 28ra bitartean izandakoak aipamen berezia merezi du. Egun horietan hainbat tokitan oso prezipitazio gogorrak eta euri-jasak erregistratu ziren. Isurialde atlantikoan 100 mm baino gehiago pilatu zen, eta zenbait lekutan baita 300 mm ere. Euri horien ondorioz, hainbat ibaiek gainezka egin zuten: Oiartzun, Muxika eta Mungia ibaiek, esaterako.

Haize-erauntsi gogorreko bi gertaeretatik azaroaren 13koa da aipagarriena, leku askotan 120 km/h-ko abiadura haize-boladak erregistratu baitziren. Otsailaren 1etik 3ra bitartean erdietsi zuten haizeak urteko abiadura maximoa, 189 km/h-ko haize-bolada erregistratu baitzuten Orduñako estazioan. Maiatzean bi aldiz eraso zuten enbatak: 13an gogorra izan zen, 130 km/h-ko abiadura gainditu zuten haizekadekin eta minutu gutxitan 10 °C jaitsierekin; eta hilaren 21ean, berriz, arinxegoa.

Urtean zehar trumoi-ekaitz gogorreko hiru gertaera izan ditugu. Prezipitazioen indarra kontuan izanik aipa ditzagun, lehenik, irailaren 18ko arratsaldean izandako trumoi-ekaitza, Urkulun 47,1 mm/h jaso baitzituzten intentsitaterik handieneko unean, eta uztailaren 22an izandako txingor-ekaitzak, Mundakan 35,4 mm/h erregistratu baitzituzten.